

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

246/2021 Foru Agindua, irailaren 21ekoa, zeinaren bidez zuentzen baita abuztuaren 2ko 216/2021 Foru Aginduaren I. eranskinean dagoen hutsa. Foru Agindu horren bidez, behin betiko onespena eman zitzaizen hauexetako kontzeju lerroen mugaketa lanei: Gasteizko udalerriko Abetxuku, Andetxa, Arangiz, Arkauti, Betoñu, Foronda, Gamarra Nagusia, Mendiguren, Miñaogutxi eta Ihurre

Abuztuaren 2ko 216/2021 Aginduaren bidez, xedatu zen behin betiko onespea ematea Abetxuku, Andetxa, Arangiz, Arkauti, Betoñu, Foronda, Gamarra Nagusia, Mendiguren, Miñaogutxi eta Ihurreko kontzeju lerroen mugaketa lanei, eta ebazpena ALHAOn argitaratzea, bai eta muga lerroa zehazten duten mugarren kokalekuen zerrenda ere, indarreko UTM ETRS89 erreferentzia sistemako koordinatuen bidez adieraziak.

Huts bat dagoela ikusi da, zehazki Abetxuku eta Gamarra Nagusiaren arteko lerroan. Foru agindu horren I. eranskinean jasotzen diren behin betiko koordinatuen zerrendan, J.1 mugariaren Y koordinatuan, 4.749.834,00 jartzen duen lekuan 4.746.834,00 jarri behar du. Gainerako agirietan, aipamen, zerrenda eta geometrietan, lerroa ongi adierazita dago.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Aplikatu beharrekoa da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan dioena: "Herri administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako huts materialak, egitezkoak edo aritmetikoak"

Horregatik, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatuak proposatuta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularren jardunean, haren titularren gaixotasunagatik, eta diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea Ingurumen eta Hirigintza Sailaren abuztuaren 2ko 216/2021 Foru Aginduaren I. eranskinean dagoen hutsa. Honela geratuko da:

ABETXUKU/GAMARRA NAGUSIA LERROA

ERREFERENTZIA SISTEMA: ETRS89 UTM PROIEKZIOA					
MUGARRIA	X	Y	Z ELIPSOIDALA	Z ORTOMETRIKOA	NON BATZEN DIREN
J.1	526.629,00	4.746.834,00	552,81	502,00	
J.1 AUX	526.628,44	4.746.851,02	556,78	505,94	
J.2	526.612,87	4.746.929,17	558,60	507,77	ZUZENA
J.3	526.620,84	4.746.983,74	559,09	508,26	ZUZENA
J.4	526.658,05	4.747.105,56	561,81	510,98	ZUZENA
J.5	526.670,35	4.747.336,92	564,86	514,03	ZUZENA
J.6	526.346,68	4.747.488,63	576,15	525,32	ZUZENA
J.7	526.264,34	4.747.575,96	583,15	532,32	ZUZENA
J.8	526.346,04	4.748.067,04	598,58	547,75	ZUZENA
J.9	526.223,64	4.748.526,00	634,81	583,99	ZUZENA
J.10	526.073,23	4.748.848,95	670,35	619,52	ZUZENA

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau jakinaraztea Abetxukuko eta Gamarra Nagusiko administrazio batzarrei eta Gasteizko Udalari.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabete biko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 25.1., 8.1. eta 46.1. artikuluetan xedatutakoaren arabera; aukera dago, halaber, egintza eman duen organoaren beraren aurrean berraztertze errekurtsua aurkezteko, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabete epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 21a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko jarduneko diputatua
M^a PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO